

8.GAIA. EUOPAR BATASUNAREN ESKUMENAK

Lisboako tratatuak ekarri du argitasun gehiago oni buruz, zerrenda batzuk agertu dira zehazteko eskumen motak (partekatuak, eskusiboak...) baina ez dago batere argi zeren eta eskumen eta helburuak nahasturik daude, atribuzioa kasuan kasuko afera delako. Bestetik Europar Batasunak bakarrik jardun dezake atribuitutako eskumenen arabera, hau da, ez du eskumen propioirik, izango ditu eskumenak noiz eta estatu kideek tratatuetan atribuitzen dizkiotenean. Europar Batasunak ez du beraz subiranotasunik, ez da estatu federala ezta ere estatirik, bueltatzen gara DELORS- en definiziora, nazioarteko organizazio oso berezia da eta horrek ez du asko laguntzen. Europar Batasunak ditu estatu kideek emaniko eskumenak zehazturiko helburuetara erdiesteko/ailegatzeko.

Artikulu oso berezi batera heltzen gara (ondo sakondu ta aztertu) **Europar Batasuneko Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 352.artikulua** BATASUNARI AHALBIDERATZEKO JARDUN DEZALA tratatuetan ezarritako helburuen bat lortzeko *“tratatuetan zehaztutako politiken eremuari dagokionez”*, nahiz eta horretarako eskumenik ez aurreikusi; beste sistemetan horri esaten zaio, Alemanian adibidez Kompetenz-Kompetenz hau da, nor du eskumena, eskumena duela esateko, bide horretatik zabaltzen zaizkio eskumenak batasunari, gerta litekelako tratatuetan eskumen hori ez agertzea, baina beharrezkoa bada tratatuetan ezarritako politikei aurre egiteko posible izango litzateke batzordea eta parlamentua parte hartzea; eta ondoren kontseiluak horren gaineko erabakia hartzea; eta 60 urte hauetako ibilbidean noizean behin erabili ohi da gaur 352.artikuluari jasotzen dena, hau ez da berria, ez du Lisboako tratatua sortu.

Europar Batasuneko tratatuaren 48.2.artikulua, batasunari dagozkion eskumenak gehitzeko edota gutxitzeko (Lisboako tratatua gutxitzeko prozedura ekarri du, lehen ez zegoen, soilik agertzen zizkigun gehitzekoa).

Zehatzago ikusteko **Europar Batasuneko Funtzionamenduari buruzko Tratatura** jo beharko dugu:

- **2.artikulua:** beste artikuluetan garatuko diren eskumenen inguruko xedapenak, batetik agertzen zaizkigu eskumen eskusiboak batasunari dagozkionak, bestetik konpartituak estatu kideen eta batasun artean, eta bestetik batasunak koordinatzeko dituen eskumenak, eta gero egokera berezian agertzen dira segurtasun eta kanpo politika, ekonomia eta enplegua horiek garatzen dira hurrengo artikuluetan 3,4,5,6.art-etan.
- **3.artikulua:** batasunaren eskusiboak diren eskumenak: aduana (batasun doganala), moneta politika, enpresen arteko lehiakortasuna, merkataritza politika, baliabide kudeaketa eta arrantza politika.
- **4.artikulua:** bertan dioten eskumen partekatuak estatu kide eta batasunaren artean, egiatan partekatutako eskumenak baino dira eskumen konkurrenteak, hau da, eremu haietan bai estatu kideek baita ere batasunak ahalmenak dituztelako, afera da 4.artikulu honetan esaten

digutenez, baldin eta batasunak eremu horietan jarduten bada, orduan estatu kideek galtzen dute egikaritzeko ahalmena baina batasunak aritzeko frogatu behar du bere parte hartzea beharrezkoa, eraginkorra eta arazo supranazionalari loturiko egintza dela. Zeintzuk dira zerrendatze dezakegunak batasunaren eremua egikaritzeko? Hor aipatzen da, barne merkatua, lur-langintza eta arrantza (aurreko eremuetan ez bada), kohesio ekonomiko sozial eta territoriala, kontsumitzaileen babesa, ikerkuntza, ingurumena, garraioa, sare europarrak, libertate segurtasun eta justizia espazioa, energia, osasun publikoa edota garapenerako laguntza eta laguntza humanitarioa, nolahi ere, estatu kideek kasu batzuetan jarduteko gaitasuna gordetzen dute arazo larrietan (salvaguardia clausula, 72.artikulua).

- **6.artikulua:** Estatu kideek honen gainean eskumena dute eta batasunak jardungo da hauetan koordinatzeko, laguntzeko eta osatzeko. Eskumenak hauek dira: gisa osasunaren babesa eta hobekuntza, industria, kultura, turismoa, hezkuntza, lanbide heziketa, gazteria eta kirola, babes zibila, administrazioen arteko lankidetzak. Horrez gain eremu partikular batzuetako zerrenda horietatik aparte aipatzen dira beste eskumen batzuk 5.artikuluan
- **5.artikulua:** ekonomia, enplegu eta gizarte politiketarako ere onartzen da batasunaren laguntza eta interbenizioa.

Eskumenetan egikaritzeko, subsidiaritate printzipioa (sartu egin zuten Maastricht-en garai hartan, 90.hamarkadaren buletan hein handi batean Britainia Handiak, Thatcher-en inizatiba izan zelako, Edinburgh-ko bilera batean konklusioetan agertu zen Europar Kontseiluaren bilera) Europar Batasunaren tratatuaren 5.art eta 2.protokoloan.

- Europar Batasuneko tratatuaren 5.artikulua: horrek badu garapen luzeagoa 2.protokoloan, bertan saiatzen dira, nolabait subsidiaritasunaren mugak zehazten, ez dago guztiz argi, batzuen arabera subsidiaritasunaren printzipioa erdi aroan daukagu sakro inperioaren egiturari, nolabait batasunaren egikaritzaren mugatzeko eta horri loturik heinekotasun (proporzionalitate) printzipioa. Horren inguruan Lisboako tratatuarekin zabaldu dute prozedura berria Europako parlamentuek halako kontrol bat izan dezaten halako egikaritzaren inguruan, aurretiazko kontrola bermatzeko badago beste protokolo batean horren inguruko zehaztasunak (protokolo hori zuzenduta baitago estatu kideen parlamentuei begira), goizetiazko alarma sistema bat, batasunaren egikaritzaren gauzatu aurretik, aukera emateko estatu kideen parlamentuek onesteko. Horrela behartzen zaio batasunari justifikatzera zertarako den beharrezkoa bere jarduna eta frogatu behar du eraginkortasun gehiago hartuko duela Batasunak horretan enpeinatzen bada eta nazioarteko arazoa gainean dagoela.